

ITZALD1 BAT

*«Itzaldi gozo onetan sermolariak eus-
kal-erriko karmeldarren berri ematen di-
gulako. Kultur-maillan sartu nai izan
dugu.»*

Eliztar maiteok: Grain bost urte Israel'eko Karmel-mendi santuan egoteko zoriona izan neban. Eta Karmel-mendi gaitetik agiri dan ikuspegi ain ederra ikusirik, Isaias igarleak esandako berba oneik etorri jatazan gogora: «Karmel eta Saron baizen eder biurtu da. Antxe ikusiko dabe Jaunaren ospea ta Jainkoaren edertasuna» (Is. 35,2).

Mendi zoragarri au Elias igarleak aukeratu eban, benetako Jaungoikoa gurtzen eben israeldarren gordeleku lez. Izan be, Jesukristo jaio baifio bederatzi gizaldi leenago, israel-darrak bide txarrera jota ebizen: egiazko Jaungoikoa baztertu ta Baal eta beste guzurrezko jainkoeri makurtuta bizi ziran. Orrez gaifiera, benetako Jaungoikoaren abade ta profetak aurrean artu ta il egin ebezan geienak, Elias eta bere lagunak izan ezik, arerioen eskuetatik iges egin ebelako. Eta ori dala-ta, Elias'ek eta bere lagunek Karmel-mendian diran kobetan ipini eben euren gordeleku ta otoitz-lekua.

Arrezkero, beti izan ziran Karmel-mendian Jainko-zale

sutsuak, Elias eta Eliseo profeta santuen izenean, otoitz-bizitzan zintzo ta errime ziarduenak. Baifia, Erdi-Aroan batez be, kurutzetarren aldian, artu eban izen aundia Karmel-mendi santuak Europa'ko kristinauen artean. Eta ainbat eta ainbat kristiiaue bakar-zalez eta eremutarrez bete ziran mendi santu onetako kobak, otoitz-bizitzan jarduteko asmoz. Giro onetan, uste barik, sortuko zan aindik lasterrera Karmeldarren Lagundia.

Ain zuzen be, XII'n gizaldian, Bertoldo santuak, Karmel-mendian egindako komentu baten alkatu zituan, ango inguruetako kobetan bananduta bizi ziran kristau bakar-zale ta eremutar guztiak. Eta olantxe sortu zan Karmeldarren Lagundia. Geroago, XHI'n gizaldian, Honorio III Aita Santuak ontzat artu ta bedeinkatu zituan Karmeldarren Lagundi au eta bere Erregelak.

Beste gauza bat. Karmel-mendia Nazaret'etik ur-urrean dago. Nazaret, barriz, ondo dakizuenez, Amabirjinaren erria da. Eta zetan esanik be ez dago, Karmel-mendiko kobetan otoitzean ziarduen kristau eremutarrak lenengo eta Karmeldar guztiak gero, Amabirjinaren babesean jarri zirana-. Orretan ez dago dudarik. Geiago oraindino, Amabirjina ain maite ebelako «Karmel-mendiko Amabirjina zoriontsuaren anaiak» deitzen asi jakeezan karmeldarrerri.

Gero, apurka-apurka, karmeldarrak Israel'en eta Europa'n zear zabaldu ziran. Baifia, lenengoetan beintzat, eragozpen aundiak izan zituen Europa'n zabaltzeko. Eragozpen oneik zirala-ta, Simon Stock santua, karmeldarren VI'n nagusia, arduraz eta kezkaz beterik egoan eta eten barik otoitzean ziarduan Amabirjifiari laguntza eske. Alako baten, 1251'n urtean, Uztaillaren 16'an, Karmengo Amabirjina berbera agertu jakon, Eskapulario bat eskintzen eutsala, esanez: «Ona emen neure emoirik bereziena, bai zeuretzat eta bai karmeldar guztientzat. Berau jantzita bizi daitena, salbau egingo da».

Berba oneikaz adoretuta, gero ta geiago zabaldu ziran karmeldarrak Europa guztian. Baifia XVI'n gizaldian, batez be, artu eben eupadarik aundiena Avila'ko Santa Teresa ta Kurutzeko San Joan'en bidez. Santu bi oneik dira, izan be,

karmeldarren lorategiko lorarik ederrenak eta karmeldarren izena mundu guztian geien zabaldu dabenak.

Eta, Euskal-Errian, zer? Zer dauke zerikusirik karmeldarrak Euskal-Erriagaz? Ara, ba; Avila'ko Santa Teresak ainbat euskaldun izan zituan bere monja, autor-entzule ta laguntzailleen artean. Eta lagun oneik zirikatuta-edo, inoiz erakutsi eban bere idatzietan Euskal-Errian (Orduia'n ain zuzen be) komenturen bat eregiteko guraria. Baina Santa Teresa'k ezin izan eban bete bere gurari ori, leenago il zalako (1582). Eta bera il eta urrengo urtean sortu zan Iruna'n Euskal-Erriko karmeldarren lenengo komentua. Monjena, ain zuzen be. Arrezkero, zer? Arrezkero ez dot uste inungo Erri'n, Euskal-Erria'n beste karmeldarren komenturik izango danik: Bizkaia'n, 20; Gipuzkoa'n, 14; Naparroa'n, 12; Araba'n 8. Eta prailleenak bakarrik: Naparroa'n, 3; Gipuzkoa'n, 3; Araba'n, 1 eta Bizkaia'n, 4: Amorebieta, Begoiia, Larrea ta Markinakoak. Markina'ko komentu onek 290 urte ditu.

Ia laureun urte luze oneitan, karmeldarrak parte aundia izan dabe euskaldunon kristau-bizitzan. Euren otoitz-bizitzaz eta lan ixillez ikasbide eder bat emon dauskue, bai praille ta bai monja karmeldarrak. Kapa zuridun karmeldar prailleak izan dira geienetan gure errietako sermolari ta garizumako mixiolari jatorrak. Eurak izan dira Karmengo Amaganako maitasuna ta bere Eskapulario santuaganako debozinoa Euskal-Errian sakon sartu ta zabaldu dabenak. Eta bai zabaldu be debozifio eder ori: ume-ume ginala oraindino, ezarri euskuen gure ama kristauak Karmengo Amaren eskapularioa ta aldean daroagu oraintxe be.

Eskapulario santua dala-ta, orain denpora gitxi gertautako pasadixu bat kontauko dautsuet. Ondo dakizuenez, joan dan maiatzean, Juan Paulo gure Aita Santuak atentadu bat euki eban eta, estu ta larri, arifieketan, Gemelli izeneko klinikara eroan eben. Etzun eben Aita Santua operazifiomai gainean, balak egin eutsoezan zauriak operateko, eta erropak erantzi eutsoezanean, Karmengo Amaren eskapularioa aurkitu eutsoen paparrean. Orduan, osagilleen artean, eztabaida bat sortu ei-zan, operateko, ia eskapularioa kenduko

ala ez-kenduko ete-eutsoen. Azken baten, Aita Santuaganako errespetoagaitik-edo, ez eutsoen kendu eskapulariorik. Pasadixu au, pasadixu bat baino ez da. Ba-dakit. Baifia pasadixu oneaz auxe esan nai dautsuet: gure Aita Santuak be Karmengo Amaren eskapularioa daroala. Eta ez oraingo Aita Santuak bakarrik, Juan Paulo'k, baita beste Aita Santu askok be, sarritan bedeinkatu izan dabe zazpi gizalditan zear Elizan irau eta irauten dauan deboziio eder au.

Karmengo Amaren egun onetan, eskapulario santua aita-tzen eta goratzen dot. Bai. Baifia ez salbamina lortzeko sorginkeri edo amuleto bat balitz lez. Ori ez. Nik ondo dakit, eskapulariorik santuena ba'da be, paparrean eskegita eroateak bakarrik, geiagoko barik, salbauko ez gaituana. Onetan argiak dira Jesus'en berbak: «Jauna, Jauna, esan dagidan edonor, ez da salbauko, neure Aitaren borondatea egin dagiana bairk>». Orregaitik, ba, Karmen'go Amaren eskapularioak, benetako eskapularioa ba'da, Jaungoikoaren salbamen asmoak eta salbamen bideak onartzera ta betetara bultzatu bear gaitu.

Izan be, Karmengo Amaren eskapularioa ezaugarri bat da; obeto esanda, guk Amabirjinari, Jesus'en Amari dautsagun maitasunaren ezaugarri bat edo agiri bat da eskapulario santua. Eta era onetara, Amabirjifiaren maitasunezko magalpean jarri gareanontzat, eskapulario santua geure betiko salbamenaren ezaugarri ziur biurtzen jaku.

Amaitzeko. Elias'en denporetan lez, gure egunotan be, kristinauok giro eskas baten murgilduta bizi gara. Egiazko Jaungoikoaren orde, beste guzurrezko jainko batzuk asmau doguz. Dirua, arrokeria, indarkeria, sexua, droga ta abar dira gure gaurko jainko-aizunak. Bestetik, kristau birtuteak aaztu egin doguz, gaurko munduan bizi dogun materialismoaren eta paganismuaren indarrez.

Giro onetan, kristinauok be indarge, makal eta triste-zamar aurkitzen gara, ezetarako almenik barik. Eta gaur-egunean bear doguz, eta ifioiz baino geiago bear be, benetako sinismenak emoten dituan poza, adorea, kemena ta indarra kristau lez gure bizitzan jokatzeko. Jarri gaitezan, ba,

guztioK Karmengo Amaren babesean eta, noraezean gabiltzan giro naaztu onetan, berak eroan gagizala gure «bidea, egia eta bizitza» dan Jesukristo gure Jaunagana.

Gaurko egun au izan daitela, anaiok, Karmengo Amari ta bere maite kutunenak diran karmendarrerri omen egiteko eguna, laureun urte luze oneitan euskaldunon kristau-bizitzan izan daben parte aundiagaitik.

Markina'n 1981 Uztaillak 16.

JESUS GARITAONANDIA